

Hor eta, alatu dira, anitz, profitatu ute anitz mendi hori, eta orai guk hestian min iten du, ta nik ez dakit horrengatik zeren xerka dailtzan; badakite guk eztuula hesten heen mendik, guhaunain eta hesten ai giela, ta eztut uste arrazoin haundik bauten hola hola agertzeko.

Baakizu zer dan? Mendi gain guzia elurrak hartia du ta orai ez dira artzen al lanian, elurrak eta yoan artio. Hori baakizu zer tzien? Baigorritarrek beren kabalak sartzen zien muga hortan ta anitz kabala baitute, subentzione azkarrak diuzte, ordian bideak einak diuzte biziki untsa mendirat heltzeko, ta luzaidearrak beti umilki hemen ta kusten dut luzaidearrak egun diren forman, saildu batzu dira, hemengo kabaladunak, pazientziaikilan egonak tira urtez eta urtez ta urtez, eta horgo subentzioneak, bueno, apalaguak, hemengo laguntzak horien laguntzekilan konparatuz, irringarriak dira: zahar arrandak, haurren launtzak, bideak e denak ezarri diuzte enbreatuik edo gudronoztatuik, ta denak, etxeko gaztiak plantatu behautelaikan laborari etxe batian laguntzak badiuzte biziki unak, ta klaro ordian azkarrago dira horgo kabaladunak, ta hemengua beti ttipio ta beti kondizione txarragotan ta gaineat mendiak, gure mendiak yaten dazkigute horien kabalek, pues hortako ari gira gure gauzen defendiatzen, gure gauzen eta protejitzen.

Kabala frango heldu da hor ta hamabost kilometraz kusten al da zomat ardi alde den, anitz mila ardi bada hor, ta horik muga hortan dailtza, ta mugako belar guzia, hori yaten zuten, ta gaineat errain dizut gauza at, lehen 're errana dut beste erreportero batzuer: Luzaidek nahi balin badu bere lurra hetsi eta horiek eztira kontent, eztira gure eta lur horren hesteaz eztira konforme, puskat eta kolpatiak dira guk hetsia, hesten duulakoz, seiñale baliatzen ziela lur hortaz horiek.

- Potxi bat emaiten zuten; hogei ta hamar mila pezeta, bana hori hemengo kabaladunak yoaiten dira kanporat, eta hogei ta hamar mila pezeta bano anitzez gehio pagatzen tu.

- Ez, ez; eztugu forma hortan arraiñatzen al, zengatik guk... eztu balio in dezaun Baigorriarrekilan arraiñamendu bat hemengo kabaladun umila eta saildua... horien gain; baakizu, horiek eta, traizionatuz. Eztu balio.

Fini da hori, ezta beste eitekoik, guk behar dugu lan hori segitu, eta guk eztuu nehoi esplikazione eman behar, guk ein behar dugun lan hortaz; eta ai gira guhaun lekian, ai gira guhaun eta kabaladunen eta protezionea emanez, zengatik ezin bizia_____ besteek forma hontan

Luzaidearrak denak elgar hartiak tira heste hortaz. Izain tugu elgarrekilan eta guahun...eta... harat-hunatak edo diferentziak, bana horren gainian denak elgar hartiak gira.

Beno, orai utzia zen yaz Argaiko kaskoa, gero Bordalepo, hortik pasten da Turrau, Lahuña, Beai, eta finitzen da Linuxen.

Ba, ba, alderdi hori ba, dena; gero gelditzen da puska bat eta
hor Ondarlako alde hortik eta Orriakoekilan. Bana jeneralian
ya... hori da azkarrena eta gehienik makur ukaiten ziena
Luzaideko kabaladunek.

Ahí, se ha llevado a pastar, mucho, ese monte lo han aprovechado mucho, y ahora que nosotros lo cerremos hace daño, y yo por eso no sé qué están buscando; saben que nosotros no cerramos sus montes, que estamos cerrando los nuestros propios, y no creo que tengan mucha razón para ponerse así.

¿Sabes qué pasa? Tienen toda la cima cubierta de nieve y ahora no pueden trabajar, hasta que se vaya la nieve y demás. ¿Sabes qué pasaba? Los de Baigorri metían su ganado en esa muga y tienen mucho ganado, tienen subvenciones importantes, entonces tienen los caminos muy bien hechos para llegar al monte, y los de Valcarlos siempre humildemente aquí, los de Valcarlos yo veo que son unos santos, la gente de aquí que tiene ganado ha estado años, años y años con mucha paciencia, y luego las subvenciones de aquí, bueno son más escasas, si se comparan las ayudas de aquí con las de ellos resultan ridículas: las pensiones de jubilación, las ayudas por los hijos, los caminos también los han embreado todos, y lo demás; cuando el joven de la casa quiere instalarse como ganadero o agricultor, tiene unas ayudas muy buenas, y claro pues los ganaderos de allí son más fuertes, y el de aquí siempre más pequeño y en peores condiciones y además sus ganados se comen los montes, nuestros montes, pues por eso estamos defendiendo nuestras cosas y protegiendo nuestras cosas.

Ha venido mucho ganado y se puede ver en quince kilómetros cuántas ovejas hay, hay muchos miles de ovejas allí, y andan en esa muga, y se comen toda la hierba de esa muga, eso era lo que se comían, y además te diré una cosa, antes también se lo dije a otros periodistas: si Valcarlos quiere cercar sus tierras y ellos no están contentos, si no están de acuerdo con que cerquemos esas tierras nuestras, si no lo están, si de alguna manera se han visto perjudicados por que nosotros cercáramos, porque nosotros cercamos, señal de que utilizaban esas tierras.

Pagaban un poco; treinta mil pesetas, pero eso, los ganaderos de aquí se van fuera y tienen que pagar mucho más que treinta mil pesetas.

No, no; no nos podemos poner de acuerdo de esa manera, porque nosotros... no sirve que nosotros hagamos un acuerdo con los baigorrianos, el ganadero humilde y santo de aquí... además, ya sabes, traicionarles a ellos. No sirve.

Se acabó eso, no hay ya nada que hacer, nosotros tenemos que seguir ese trabajo, y no tenemos que dar explicaciones a nadie, nosotros tenemos que trabajar con eso; y lo estamos haciendo en nuestro propio sitio, estamos protegiéndonos a

nosotros mismos y a los ganaderos, porque no se puede
..... la vida los demás de esa forma.

Todos los de Valcarlos están de acuerdo con ese asunto de cercar. Tendremos entre nosotros nuestros más y nuestros menos o algunas diferencias, pero sobre ese tema todos estamos de acuerdo.

Bueno, la cima de Argai la han dejado el año pasado, luego Bordalepo, por ahí pasa Turrau, Lahuña, Beai, y se acaba en Lindux.

Sí, sí, esa zona sí, toda; luego queda un trozo ahí en la zona de Ondarrolako con los de Roncesvalles. Pero en general ya... eso es lo más importante y lo que más ha humillado a los ganaderos de Valcarlos.